**1. ILDO ESTRATEGIKOA EUSKAL IRRATI TELEBISTAK EUSKARAZ FUNTZIONA DEZAKE**

| | |
|---|---|
| HELBURUA | **1.1. Lan prozesuak euskaraz egin daitezkeela bermatzea** |
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBk hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburu bat du, barne-testuen hizkuntza-tratamenduari buruzkoa.<br>(b) Dokumentu-eredu eta dokumentu-txantiloi guztiek euskarazko bertsioa dute.<br>(c) EITBn sortzen den lan-dokumentazioak euskarazko bertsioa du beti.<br>(d) Kanpoko fabrikatzaileen programa informatikoak euskarazko bertsioan erabil daitezke, merkatuan existituz gero.<br>(e) EITBk sortutako aplikazio informatiko guztiek euskarazko bertsioa dute.<br>(f) Zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio-bideetan euskara beti dago presente.<br>(g) EITBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileei EITBko langileen hizkuntza-eskakizun berak aplikatzen zaizkie.<br>(h) Gestio-taldeko kideei EITBko langileen hizkuntza-eskakizun berak aplikatzen zaizkie.<br>(i) Langileek badute euren lanaz euskaraz aritzeko ezagutza lexikoa eta testuala. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Beste erakunde batzuen esperientzia ezagutu: korredakzioa, euskara lehenestea, *Plain English*... | EITB | | | | | | | | Euskara Zerbitzua, Kalitatea / Bultzada |
| (a) 02 | Hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburua (HPIEE) prestatu. | | EITB | | | | | | | Euskara Zerbitzua, Kalitatea / Bultzada |
| (a) 03 | HPIEEaren zabalkundea egin. | | DENAK | | | | | | | Komunikazioa Gestoreak |
| (b) 01 | Akta, deialdi eta abarren ereduak bildu EITB osoan. | | DENAK | | | | | | | Euskara Zerbitzua Kalitatea / Bultzada |
| (b) 02 | Akta-eredua, deialdi-eredua... adostu euskaraz EITB osorako, HPIEEari jarraituta. | | | EITB | | | | | | Euskara Zerbitzua Kalitatea / Bultzada |
| (b) 03 | Eredu berrien zabalkundea egin. | | | DENAK | | | | | | Komunikazioa Gestoreak |
| (c) 01 | Dokumentazioa lantzen duten langileei beharrezko prestakuntza eman. | | 1.1.(i) | | | | | | | Prestakuntza |
| (c) 02 | Dokumentazio berria prestatu behar denean proiektuaren buruak HPIEEaren jarraibideak betetzeko ardura hartu. | | 1.1.(a) | | | | | | | |
| (d) 01 | Kanpoko fabrikatzaileen software mikroinformatikoaren errolda egin. | | DENAK | | | | | | | EAZ-CAU |
| (d) 02 | Software horrek euskarazko bertsioa baduen jakin. | | DENAK | | | | | | | EAZ-CAU |
| (d) 03 | Kanpainak egin, langileek euskarazko bertsioa duten programak euskaraz instalatzea eska dezaten. | | DENAK | | | | | | | Komunikazioa Gestoreak |
| (e) 01 | Aplikazioak sortzen dituzten langileei beharrezko prestakuntza eman. | | 1.1.(i) EITB | | | | | | | Prestakuntza |
| (e) 02 | EITBn sortzen diren aplikazioek gutxienez euskarazko bertsioa izango dute. | | | DENAK | | | | | | Aplikazioak Euskarri berriak eitb.com |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| (f) 01 | Zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio-bideen kudeatzaileek zer hizkuntza-premia duten zehaztu. | DENAK | | | | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Prestakuntza<br>Gestoreak |
| (f) 02 | Zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio-bideen kudeatzaileei beharrezko prestakuntza eman. | | 1.1.(i) | | | | | | | | Prestakuntza |
| (f) 03 | Zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio-bideetan HPIEEaren jarraibideak bete. | | 1.1.(a) | | | | | | | | Euskara Batzordea |
| (g) 01 | EITBren egoitzetan eman beharreko zerbitzuak kontratatzeko deialdietan langileei EITBn ezarrita dauden hizkuntza-eskakizun berak ezarriko zaizkiela adierazi. | | | DENAK | | | | | | | Erosketak |
| (g) 02 | EITBren egoitzetan eman beharreko zerbitzuak kontratatzeko deialdietan langileen hizkuntza-maila egiaztatzeko prozedura abiarazi. | | | DENAK | | | | | | | Erosketak |
| (h) 01 | Gestio-taldekoei EITBko langileen hizkuntza-eskakizun berak ezartzea antolatu: egun ari direnenak gaitzeko aukerak, inkorporazio berrien hizkuntza-profila kontrastatzeko prozedura... | | DENAK | | | | | | | | Zuzendaritza<br>Euskara Zerbitzua |
| (i) 01 | Hizkuntza-premien diagnostikoa egin: hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik ez daukaten pertsonak, HPIEEaren praktikak... | | | DENAK | | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Gestoreak |
| (i) 02 | Etengabeko formazioaren bitartez, EITBko langileei lanerako hizkuntza-trebetasunak hobetzeko bideak ezagutarazi: testugintza-baliabideak, HIKEA... | | DENAK | | | | | | | | Prestakuntza |

| HELBURUA | **1.2. Euskararen lehentasunezko erabilera erraztea parte-hartzaile guztiak elebidunak diren lan-prozesuetan** |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) Langile elebidunek badute bilera-deiak, aktak... euskaraz idazteko trebakuntza.<br>(b) Langile elebidunek dokumentazioa sortzeko hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburuaren laguntza dute.<br>(c) Prozesu-arduradunek badakite zelan bideratu bilera euskararen ezagutza ez oso handia duten parte-hartzaileak daudenean. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Langileek euren lanean euskaraz aritzeko hizkuntza-ezagutza badutela ziurtatu. | | 1.1.(i) | | | | | | | |
| (b) 01 | Langileek HPIEEa ezagutzen dutela ziurtatu. | | 1.1.(a) | | | | | | | |
| (b) 02 | Langileek akta, deialdi eta abarren eredu normalizatuen berri badutela ziurtatu. | | | 1.1.(b) | | | | | | |
| (c) 01 | Laguntza-protokolo bat prestatu, bilera batean euskararen ezagutza txikia duten parte-hartzaileak daudenean zelan jokatu azaltzeko. | | | DENAK | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Bultzada |
| (c) 02 | Laguntza-protokoloaren zabalkundea egin. | | | DENAK | | | | | | Komunikazioa<br>Gestoreak |

| HELBURUA | **1.3. Lanean eta harremanetan euskara erabiltzeko motibazioa sustatzea** |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBko eragileek euskara sustatzeko kanpaina bat antolatzen dute EITB osoan urtero.<br>(b) Martxan dira "Mintzalaguna" / hizkuntza-tutorea / "Kafe-orduan euskaraz" / ... programak.<br>(c) Euskararen Nazioarteko Egunean Zuzendaritzak onirizpena agertzen dio ekipo / pertsona bati, euskararen erabilera sustatu duelako.<br>(d) Langile / kolaboratzaile / bekadun berriei harrera egiten zaienean, EITBn lan-ingurune euskaldun baten alde egin dela adierazten zaie.<br>(e) Gestio-taldekoek eredu izateko konpromisoa hartua dute. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Euskara Batzordeak eta EITBko eragileek (sindikatuek...) urteko ideia, asmoa edo goiburua aukeratu. | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Euskara Batzordea<br>EITBko eragileak |
| (a) 02 | EITBko eragileek ideia, asmo edo goiburu horren inguruan euskara sustatzeko barne-kanpaina antolatu. | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | EITBko eragileak |
| (b) 01 | "Mintzalaguna" edo horrelako topagune batean parte hartzeko interesa dutenak biltzeko deialdia egin. | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Euskara Batzordea<br>EITBko eragileak |
| (b) 02 | Bildutakoen artean tutore-ikasnahi bikoteak sortu. | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Euskara Batzordea<br>EITBko eragileak |
| (b) 03 | Bikote bakoitzak bere topagunearen formatua aukeratu: «kafe-orduan euskaraz», «irakurzaleen txokoa»... | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Euskara Batzordea<br>EITBko eragileak |
| (c) 01 | Euskara Batzordeak eta Zuzendaritzak adostu nori agertu onirizpena euskararen erabilera sustatu duelako. | DENAK | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Euskara Batzordea<br>Zuzendaritza |
| (c) 02 | Euskararen Nazioarteko Egunean EITB osoari eman onirizpen horren berri ekitaldi batean. | DENAK | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Zuzendaritza |
| (d) 01 | Ongietorri-protokolo (1) bat prestatu, EITBn lan-ingurune euskaldun baten alde egin dela jasotzen duena. | | DENAK | | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Kalitatea<br>Hautaketa<br>Lan Harremanak |
| (d) 02 | Langile, kolaboratzaile eta bekadun berriei harrera egiten dietenei protokoloa helarazi eta betearazi. | | | DENAK | DENAK | | | | | Hautaketa<br>Gestoreak |
| (e) 01 | Gestio-taldekoei EITBren euskararen aldeko hautuaren berri eman: protokoloak, euskara-planak... | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Zuzendaritza |
| (e) 02 | Gestio-taldekoei EITBko langileen hizkuntza-eskakizun berak ezartzea antolatu. | | 1.1.(h) | | | | | | | |

(1) Protokolo horrek, besteak beste, HPIEE a, dokumentu-eredu normalizatuak eta aplikazioen euskarazko bertsioak badirela azaldu behar du.

| HELBURUA | **1.4. EITBko enpresa guztietako lanpostu bakoitzean euskara eskakizuna ezartzea** | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) Hizkuntza-eskakizunak enpresaka eta lanpostuka bereizita daude.<br>(b) Hizkuntza-eskakizunak Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera daude definituta.<br>(c) Hizkuntza-eskakizunak enpresa bakoitzaren lan-hitzarmenean jasota daude. | | | | | | | | | |
| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Enpresa bakoitzeko lanpostu zerrenda osatu. | | DENAK | | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Lan Harremanak |
| (b) 01 | Lanpostu bakoitzari hizkuntza-eskakizuna ezarri, lan-zentroaren, betekizunen eta prestakuntza-mailaren arabera, Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko titulazioak aintzat hartuta. | ETB<br>EI | EITB<br>NET<br>RE+RV | | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Lan Harremanak<br>Sindikatuak |
| (c) 01 | Lan-hitzarmenetan garbiro jaso hizkuntza-eskakizunak: bakoitzaren definizioa, eta lanpostu bakoitzari zein dagokion. | | DENAK | | | | | | | Zuzendaritza<br>Sindikatuak |

| HELBURUA | **1.5. Langile bakoitzak bere lanposturako behar duen euskara maila lortzeko baliabideak ezartzea** | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) Hizkuntza-prestakuntzarako ekimenek diru-sail bat dute urtero EITBren aurrekontuetan.<br>(b) Kontratazio-prozedurak hizkuntza-eskakizunekin loturiko protokolo bat dauka atxikita. | | | | | | | | | |
| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Hizkuntza-eskakizunak EITBko lanpostu guztietan ezarri. | | 1.4.<br>DENAK | | | | | | | Zuzendaritza<br>Lan Harremanak<br>Euskara Zerbitzua |
| (a) 02 | Langileen hizkuntza-ezagutzaren errolda egin. | | DENAK | | | | | | | Lan Harremanak<br>Euskara Zerbitzua |
| (a) 03 | Maila ez daukatenentzat prestakuntza-ekimenak antolatu. | | DENAK | DENAK | DENAK | | | | | Prestakuntza |
| (b) 01 | Kontratazio berriek dagokien hizkuntza-eskakizuna betetzen dutela ziurtatzeko prozedura zehaztu. | | DENAK | | | | | | | Hautaketa<br>Lan Harremanak |
| (b) 02 | Kontratazio berriei EITBn lan-ingurune euskaldun baten alde egin dela jakinarazi. | | | 1.3.(d) | 1.3.(d) | | | | | Hautaketa |

| 2. ILDO ESTRATEGIKOA | EUSKAL IRRATI TELEBISTAK EUSKALDUN IRUDIA ZABALTZEN DU KANPOAN |
|---|---|

| HELBURUA | 2.1. EITBren irudi korporatiboa euskararekin elkartzea |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBren promozio-kanpainetan euskarazko bertsioa egiten da beti, eta bertsio horren hizkuntza-egokitasuna zaindu egiten da.<br>(b) EITBk euskaraz aritzen diren esatari eta aurkezleekin lotzen du bere irudia promozio-kanpainetan.<br>(c) EITBk argitaratzen dituen testuek euskarazko bertsioa dute beti, eta bertsio horren hizkuntza-egokitasuna zaindu egiten da.<br>(d) EITBren egoitzetan hizkuntza-paisaia euskaraz ageri da. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Promozio-kanpaina berri bat antolatzen denean, Promozio Arloak euskarazko bertsioa eskatu publizitate agentziari. | EITB | | | | | | | | Promoz. eta Irudia |
| (a) 02 | Promozio Arloak Euskara Zerbitzuari eskatu euskarazko bertsioaren onarpena. | EITB | | | | | | | | Promoz. eta Irudia<br>Euskara Zerbitzua |
| (b) 01 | Promozio-kanpainetan, batez ere euskaraz aritzen diren esatari eta aurkezleekin lotu EITBren irudia. | | EITB | EITB | EITB | | | | | Zuzendaritza<br>Promoz. eta Irudia |
| (c) 01 | Promozio Arloak edo dagokion arloak euskarazko bertsioa eskatu liburuxkaren bat, aldizkariren bat... prestatu behar den bakoitzean. | | 1.1.(a) | | | | | | | Gestoreak |
| (c) 02 | Dagokion arloak Euskara Zerbitzuari eskatu euskarazko bertsioaren onarpena. | | DENAK | | | | | | | Gestoreak<br>Euskara Zerbitzua |
| (d) 01 | EITBren egoitzaren batean kartelen bat ipini behar duenak Egoitza Arloari helarazi eskabidea. | DENAK | | | | | | | | Egoitzak |
| (d) 02 | Egoitza Arloak Arlo Artistikoari eskatu kartelaren diseinua, euskarari esklusibitatea (edo lehentasuna) emateko moduan. | | 1.1.(a) | | | | | | | Egoitzak<br>Arlo Artistikoa |
| (d) 03 | Arlo Artistikoak Euskara Zerbitzuari eskatu kartelaren onarpena. | | DENAK | | | | | | | Arlo Artistikoa<br>Euskara Zerbitzua |

| HELBURUA | 2.2. Kanpo-harremanetan EITBk euskaraz jardun dezakeela bermatzea |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) Hornitzaileekin, bezeroekin eta ikus-entzuleekin harreman zuzenean dauden pertsonak euskaldunak dira.<br>(b) Protokolo bat dago hornitzaile, bezero eta ikus-entzuleekiko lehen hitza euskaraz izan dadin. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Hizkuntza-eskakizunak EITBko lanpostu guztietan ezarri. | | 1.4 | | | | | | | |
| (b) 01 | Protokolo bat prestatu, kanpo-harremanetan lehen hitza euskaraz egin dadin. | | | DENAK | | | | | | Euskara Zerbitzua<br>Erosketak / Salment<br>Kanpo Harremanak |
| (b) 02 | Protokolo hori hornitzaile, bezero eta ikus-entzuleekin harremana duten guztiei helarazi. | | | DENAK | | | | | | Gestoreak<br>Kanpo Harremanak |

| HELBURUA | **2.3. Euskararen balioa aldarrikatzea** |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBk produktu esklusiboak euskaraz eskaintzen ditu.<br>(b) Iragarleak, publizistak eta bestelako agenteak euskarazko publizitatearen jardunaldietan biltzen ditu urtean behin (El Sol-en barruan?).<br>(c) EITBk Zilarrezko Bikain ziurtagiria du. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Produktu esklusibo nabarmengarriak euskaraz bakarrik eskaini. | | | ETB<br>EI | | | | | | Zuzendaritza<br>Programak<br>Programazioa |
| (a) 02 | Euskaraz bakarrik ematen diren produktu esklusibo horien gaineko promozio-kanpainak antolatu. | | | ETB<br>IRR | | | | | | Promoz. eta Irudia |
| (b) 01 | Euskarazko publizitatearen jardunaldiak antolatu urtero, euskararen balio komertziala aldarrikatzeko helburuarekin. | | | EITB | EITB | | | | | Promoz. eta Irudia<br>Arlo Komertziala |
| (b) 02 | Plataforma horren bidez EITBk euskarazko publizitatearen alorrean egiten duen lanaren berri eman. | | | EITB | EITB | | | | | Promoz. eta Irudia<br>Arlo Komertziala<br>Euskara Zerbitzua |
| (c) 01 | Beste enpresa batzuen Bikain ebaluazioetan parte hartu, prozesuan esperientzia hartze aldera. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Kalitatea<br>Euskara Batzordea |
| (c) 02 | Bikain ebaluatzaile gehiago prestatu EITBko langileen artean. | | EITB | EITB | | | | | | Euskara Batzordea |
| (c) 03 | Bikain autoebaluazioak egin, esperientzia hartze aldera. | | | EITB | | | | | | Euskara Batzordea |
| (c) 04 | Bikain ziurtagiria lortzeko plangintza zehatza egin. | | | EITB | | | | | | Euskara Batzordea |
| (c) 05 | Bikain egiaztatze prozesura aurkeztu. | | | | DENAK | | | | | Zuzendaritza |

| HELBURUA | **2.4. Gizartean euskararekin lotuta antolatzen diren ekitaldietan EITB presente egotea** |
|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBk gune bat antolatzen du ikastolen jaietan.<br>(b) EITBk gune bat antolatzen du Durangoko azokan.<br>(c) EITBk Hiru3 jaia antolatzen du ikasturtearen amaieran.<br>(d) EITBk Euskararen Nazioarteko Egunean ekitaldi mediatikoa antolatzen du. |

| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | Ikastolen jaietan gune bat antolatu. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Promoz. eta Irudia<br>Kanal Berriak |
| (b) 01 | Durangoko azokan gune bat antolatu. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Promoz. eta Irudia |
| (c) 01 | Ikasturte amaierako jaia antolatu Hiru3 komunitateko bazkideentzat. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Promoz. eta Irudia<br>Kanal Berriak |
| (d) 01 | Euskararen Nazioarteko Egunean berariazko saioak programatu telebistan, irratian eta Interneten. | | ETB<br>IRR<br>NET | ETB<br>IRR<br>NET | ETB<br>IRR<br>NET | | | | | Zuzendaritza |

| HELBURUA | **2.5. EITB euskalgintzaren sareetan partaide bihurtzea** | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2016.12.31KO EGOERA | (a) EITBk lankidetza-hitzarmena du Euskaltzaindiarekin.<br>(b) EITB Euskal Herriko unibertsitateen lankide da euskararen ikerketarako egitarauetan.<br>(c) EITBk bere esperientziaren ekarria egiten du erakundeek antolaturiko egitarauetan (master eta ikastaroak, lehiaketak, jardunaldiak...).<br>(d) EITBk albisteak trukatzen ditu «sustatu.com», «erabili.com», «euskaltzaindia.net» eta beste webgune batzuekin. | | | | | | | | | |
| URR. | EKINTZA | NOIZKO | | | | BETETZE MAILA | | | | JABEA |
| | | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | |
| (a) 01 | EITBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena kudeatu. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Zuzendaritza<br>Euskara Zerbitzua |
| (b) 01 | Euskal Herriko unibertsitateek euskararen ikerketarako lankidetza eskatuz gero, positiboki erantzun. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Zuzendaritza<br>Euskara Zerbitzua<br>Kalitatea |
| (c) 01 | Euskal Herriko erakundeek euskararen inguruan antolatzen dituzten master, ikastaro, jardunaldi eta abarretan parte hartzea eskatuz gero, positiboki erantzun. | EITB | EITB | EITB | EITB | | | | | Zuzendaritza<br>Euskara Zerbitzua<br>Kalitatea<br>Gestoreak |
| (d) 01 | Euskal komunitate elektronikoarekin lankidetza eta elkarlana sustatzeko bideak landu. | NET | NET | NET | NET | | | | | EITBnet |

**LEHENTASUNAK ETA ADIERAZLEAK** SINATUA - SINATUA - SINATUA

## LEHENTASUNAK

1.1. (a) EITBk hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburu bat du, barne-testuen hizkuntza-tratamenduari buruzkoa.

1.3. (d) Langile / kolaboratzaile / bekadun berriei harrera egiten zaienean, EITB lan-ingurune euskalduna dela adierazten eta erakusten zaie.

1.4. (c) Hizkuntza-eskakizunak enpresa bakoitzaren lan-hitzarmenean jasota daude.

1.5. (a) Hizkuntza-prestakuntzarako ekimenek diru-sail bat dute urtero EITBren aurrekontuetan.

## ADIERAZLEAK

| ADIERAZLEA | HELBURUA | | | | ERREALA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
| 1. Euskara-planaren betetze-maila | % 25 | % 40 | % 70 | % 90 | | | | |
| 2. Euskara-planaren komunikazio-ekintzak | | | | | | | | |
| 2.1. Informazioaren zabalkunderako ekintzak: | 4 | 4 | 4 | 4 | | | | |
| 2.2. Planaren emaitzak sozializatzeko ekintzak | - | 1 | 2 | 2 | | | | |
| 3. Euskara-planarekin loturiko jendaurreko jarduerak | 4 | 6 | 6 | 6 | | | | |
| 4. EITBrako finkatu diren hizkuntza-eskakizunak beteta sartu diren pertsona berriak | | | | | | | | |
| 4.1. Plantilako langileak | - | % 80 | % 90 | % 100 | | | | |
| 4.2. EITBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileak | - | % 40 | % 70 | % 90 | | | | |
| 4.3. Praktiketako ikasleak | - | % 90 | % 95 | % 100 | | | | |
| 4.4. Gestoreak eta arloburuak | - | % 70 | % 85 | % 100 | | | | |
| 4.5. Zuzendaritza-kideak | - | % 40 | % 60 | % 75 | | | | |
| 5. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea lortzen duten EITBko pertsonen portzentajea, hizkuntza-eskakizunak definitzen eta aplikatzen diren unean egiaztatu barik zeukatenen multzoan (*multzo horren datu erreala **1.1.i** ekintzari dagokion lehen urratsean lortuko da*). | - | - | % 5 | % 10 | | | | |

| LEHENTASUNAK ETA ADIERAZLEAK | BERRIA - BERRIA - BERRIA |
|---|---|

## LEHENTASUNAK

1.1. (a) EITBk hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburu bat du, barne-testuen hizkuntza-tratamenduari buruzkoa.

1.3. (d) Langile / kolaboratzaile / bekadun berriei harrera egiten zaienean, EITB lan-ingurune euskalduna dela adierazten eta erakusten zaie.

1.4. (c) Hizkuntza-eskakizunak enpresa bakoitzaren lan-hitzarmenean jasota daude.

1.5. (a) Hizkuntza-prestakuntzarako ekimenek diru-sail bat dute urtero EITBren aurrekontuetan.

## ADIERAZLEAK

| ADIERAZLEA | HELBURUA | | | | ERREALA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
| 1. Euskara-planaren betetze-maila | % 25 | % 40 | % 70 | % 90 | | | | |
| 2. Euskara-planaren komunikazio-ekintzak | | | | | | | | |
| 2.1. Informazioaren zabalkunderako ekintzak: | 4 | 4 | 4 | 4 | | | | |
| 2.2. Planaren emaitzak sozializatzeko ekintzak | - | 1 | 2 | 2 | | | | |
| 3. Euskara-planarekin loturiko jendaurreko jarduerak | 4 | 6 | 6 | 6 | | | | |
| 4. EITBrako finkatu diren hizkuntza-eskakizunak beteta sartu diren pertsona berriak | | | | | | | | |
| 4.1. Plantilako langileak | - | % 80 | % 90 | % 100 | | | | |
| 4.2. EITBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileak (1) | - | % 40 | % 50 | % 60 | | | | |
| 4.3. Praktiketako ikasleak (2) | - | % 90 | % 95 | % 100 | | | | |
| 4.4. Zuzendari, arduradun, koordinadore eta arloburuak | - | % 70 | % 85 | % 100 | | | | |
| 4.5. Zuzendaritza Nagusiko kideak | - | % 40 | % 60 | % 75 | | | | |
| 5. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea lortzen duten EITBko pertsonen portzentajea, hizkuntza-eskakizunak definitzen eta aplikatzen diren unean egiaztatu barik zeukatenen multzoan (*multzo horren datu erreala* ***1.1.i*** *ekintzari dagokion lehen urratsean lortuko da*). | - | - | % 5 | % 10 | | | | |

Oharrak:

(1) *EiTBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileak*:
- Kategoria honetan ez dira programetako adituak eta solaskideak sartzen.
- Bai sartzen dira programa horien gidariak.
- Derrigorrez subrogatu behar diren langileak ez dira pertsona berritzat hartuko lizitazioa berrizten denean.

(2) *Praktiketako ikasleak*:
- Kategoria honen konputuan ez dira sartzen EAEtik kanpoko heziketa-zentroetatik datozen ikasleak.
- Kategoria honen konputuan ez dira sartzen EAEz gaindiko ikaskuntza-programetatik datozen ikasleak.

**LEHENTASUNAK ETA ADIERAZLEAK** **BERRIA 2 - BERRIA 2 - BERRIA 2**

## LEHENTASUNAK

1.1. (a) EITBk hizkuntza-politikako eta idazkuntza elebidunerako eskuliburu bat du, barne-testuen hizkuntza-tratamenduari buruzkoa.

1.3. (d) Langile / kolaboratzaile / bekadun berriei harrera egiten zaienean, EITB lan-ingurune euskalduna dela adierazten eta erakusten zaie.

1.4. (c) Hizkuntza-eskakizunak enpresa bakoitzaren lan-hitzarmenean jasota daude.

1.5. (a) Hizkuntza-prestakuntzarako ekimenek diru-sail bat dute urtero EITBren aurrekontuetan.

## ADIERAZLEAK

| ADIERAZLEA | HELBURUA | | | | ERREALA | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
| 1. Euskara-planaren betetze-maila | % 25 | % 40 | % 70 | % 90 | | | | |
| 2. Euskara-planaren komunikazio-ekintzak | | | | | | | | |
| 2.1. Informazioaren zabalkunderako ekintzak: | 4 | 4 | 4 | 4 | | | | |
| 2.2. Planaren emaitzak sozializatzeko ekintzak | - | 1 | 2 | 2 | | | | |
| 3. Euskara-planarekin loturiko jendaurreko jarduerak | 4 | 6 | 6 | 6 | | | | |
| 4. EITBrako finkatu diren hizkuntza-eskakizunak beteta sartu diren pertsona berriak | | | | | | | | |
| 4.1. Plantilako langileak | - | %80 | %90 | %100 | | | | |
| 4.2. EITBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileak (1) | - | %40 | %50 | %60 | | | | |
| 4.3. Praktiketako ikasleak (2) | - | %90 | %95 | %100 | | | | |
| 4.4. Zuzendari, arduradun, koordinadore eta arloburuak | - | %70 | %80 | %90 | | | | |
| 4.5. Zuzendaritza Nagusiko kideak | - | %40 | %60 | %75 | | | | |
| 5. EiTB, ETB eta EI enpresetan dagokien eskakizuna egiaztatzea lortzen duten pertsonak, hizkuntza-eskakizunak aplikatzen diren unean egiaztatu barik zeukatenen multzoan | - | - | % 5 | % 10 | | | | |
| 6. RV eta RE enpresetan lehen plangintzaldian gutxienez dagokien mailaren aurrekoa egiaztatzea lortzen duten pertsonak hizkuntza-eskakizunak aplikatzen diren unean egiaztatu barik zeukatenen multzoan (3) | - | - | %15 | %35 | | | | |

Oharrak:

(1) *EiTBren egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetako langileak*:
- Kategoria honetan ez dira programetako adituak eta solaskideak sartzen.
- Bai sartzen dira programa horien gidariak.
- Derrigorrez subrogatu behar diren langileak ez dira pertsona berritzat hartuko lizitazioa berrizten denean.

(2) *Praktiketako ikasleak*:
- Kategoria honen konputuan ez dira sartzen EAEtik kanpoko heziketa-zentroetatik datozen ikasleak.
- Kategoria honen konputuan ez dira sartzen EAEz gaindiko ikaskuntza-programetatik datozen ikasleak.

(3) RV eta RE enpresetan orain arte hizkuntza-eskakizunik egon ez dela aintzat hartuta, lau urteko bi plangintzaldi antolatuko dira langileek lanpostuagatik dagokien hizkuntza-eskakizuna egiazta dezaten promozio ondorioetarako.